



Emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloa **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea**

2017. URTEKO TXOSTENA



AURKIBIDEA

HITZAURREA	2
1. ESPARRU OROKORRA	3
1.1 Artatutako kasuak, motaren arabera:	4
1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:	6
2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:	7
3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK	8
4. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:	9
4.1 Kexen eta salaketen prozedurak:	10
4.2 Komunikabideak eta publizitatea:	11
4.3 Beste hainbat eremuren gaineko kexak eta salaketak:	16
Genero-estereotipoak haurrentzako film batean.....	22
Haurrentzako liburu baten gaineko salaketa bat.....	22
Lehiaketa batean, epai-mahaia osatzen duten hamar lagunetik bat da bakarrik emakumea	23
5. 2016. URTEKO GOMENDIOEI JARRAIPENA:	23
6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:	24

HITZAURREA

Atal honetan, Emakundek 2017an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Alor horretan Emakundek dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen duenaren, 64. eta 65. artikuluetan ezartzen dira.

Aipatutako artikuluekin bat etorritz, lau jarduketa mota gauzatu dira:

- Esparru orokorra.
- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexa eta salaketen prozedurak.
- Koordinazio- eta kolaborazio-mekanismoak beste erakunde eta instituzio batzuekin.

Txostena lau ataletan egituratzen da. Lehenengoak sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrek defendatzeko jarduketa-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenak, eskaini diren berehalako aholkularitzen gaineko informazioa jasotzen du; hirugarrenak, idatziz erantzuten diren eta aldez aurreko azterketa behar duten kontsulten gainean informatzen du. Azkenik, kexen eta salaketen gaineko prozedurak jasotzen dira. Amaitzeko, laugarren atalean beste erakunde eta instituzioekin dauden koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak zehazten dira.

1. ESPARRU OROKORRA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa, eta bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak Defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari bere edukiak, eskumenak eta funtzioak esleitu zizkion; nolanahi ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:


- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.


Orokorrean, hauek dira herritarrei zuzeneko arreta emateko jarduketak, sektore pribatuan berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa defendatzeko:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundean herritarrek aurkeztutako eskaerek kontsulta, kexa edo salaketa formatua dute. Idatziz erantzundako kontsultak, aurretiko azterlana behar dutenak, eta burututako kexa- eta salaketa-prozedurak, guztira 195 dira, eta horietatik 70 kontsultak izan dira (% 36), 91 kexak (% 47) eta 34 salaketak (% 17).

2017ko datuek igoera islatzen dute aurreko urteko publizitate- eta komunikabide-eremuko kasuetan; zehazki, iaz baino 22 prozedura gehiago egin dira. 2017ko uztail hasieran komunikabideen eta publizitatearen gaineko kexak bidaltzeko Begira aplikazio berria martxan jarri zenetik gertatu da igoera hori.

1.1 Artatutako kasuak, motaren arabera:





Eskatzaile gehienak posta elektronikoaren bidez komunikatu dira kontsultak eta salaketak egiteko. Aldiz, kexa gehienak publizitate eta komunikazio sexistei buruzko kexak hautemateko Begira aplikazio berriaren bidez heldu dira.

Zerbitzu horrekin komunikatzeko gaztelania erabili da batez ere, erabiltzaileen % 70ek hori erabili baitute. Prozedura horien eskaera-egileen % 77 emakumeak izan dira eta % 23 gizonak, eskubidearen titularra edo kasuaren xede-objektua dena dela.




1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:

Goian aipatutako kasuen gaiei eta maiztasunari helduta, honako banaketa hau ikusten da:

Kontsulta-, kexa- eta salaketa-prozedura horiek komunikabideei eta publizitateari (% 43) eta lan-eremuari (% 27) buruzkoak izan dira batez ere. Azken talde horretan, argi eta garbi, nagusi dira eremu pertsonalarekin lotutako kasuak (familia-arazoekin, dibortzioekin eta banaketekin). Horien % 19 lan-eremuko gaiak izan dira, bereziki emakumeek haurdunaldian eta edoskitzaroan zehar dituzten eskubideei buruzkoak, bai eta familia eta lana uztartzeko eskubideei buruzkoak ere, bereziki legezko zaintzagatik jardunaldi-murritzketarekin lotutako kasuetan ordutegia zehazteko. Azkenik, kasuen % 5,5 elkarte-eremuari buruzkoak eta % 4,4 kirolaren alorrari buruzkoak izan dira.

Kasuak, jarduketa-eremuaren arabera



2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzutea xede. 2017. urtean, berehalako aholkularitza emateko 295 kontsulta erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak.

Aurrez aurreko arreta-zerbitzua etengabe eskaintzen da Emakunderen Gasteizko egoitzan eta, gainera, aldez aurretik hitzordua eskatuz arreta pertsonaleko zerbitzua ematen jarraitzen da Bilboko eta Donostiako egoitzetan. Aurrez aurreko arreta-zerbitzuan 58 arreta zenbatu dira.

Kontsulta horien gai nagusiak Etxeko Zerbitzarien araudiari buruzkoak dira. Esparru horretako langile gehienak, denak ez esateagatik, emakumeak dira. Gainera, emakume horiek diskriminazio asko jasan behar izaten dituzte; izan ere, sarritan egoera irregularrean izaten dira, eta ez dituzte ezagutzen zer arau bete behar dituzten. Azken finean, emakume horiek egoera ahulean izaten dira. Gure ustez, instituzioek arreta berezia eskaini beharko liokete esparru horri, eta




alde horretatik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen berdintasun-eskubideen defentsarako arloak erreferentzia bat izan nahi du langile horientzat guztientzat. Era berean, enplegatzaileei ere aholkularitza eskaintzen zaie. Izan ere, enplegatzailea ez da inoiz «*ad hoc*» enpresa bat izaten; aitzitik, etxeetan laguntza behar izaten duten eta familia-unitate bat osatzen duten enplegatzaileak izaten dira, zeinak, sarritan, orientazioa eskatzen baitigute etxeko zerbitzarien kontratua formalizatzean kontuan izan behar dituzten eskubideen eta betebeharren gainean.

Esparru horretatik kanpo jasotzen diren kontsultak familiaren, lanaren, laguntzen, eta abarren gainekoak izaten dira.

Kontsulta horiek egin dituzten pertsonen profilari dagokionez, % 8 gizonak izan dira eta gainerako % 92a, berriz, emakumeak.

3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK

Idatziz erantzundako kontsultak aurretiaz aztertu behar dira, eta 2017an 70 izan ziren guztira. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoiak, besteak beste, lan-esparrukoak dira 24; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da, 18. Azken esparru horretan berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina hala ere, eskaera horiek idatziz erantzun dira. Gehienetan, dibortzioen edo banaketen gaineko gaiak izan dira. Kirolaren esparruan 10 eskaera egin dira, eta elkartearen esparruan 8, berdintasunaren araudiaren gainean 5, eta hezkuntzaren, osasunaren eta publizitatearen esparruetan bina.



Lan-esparruko kontsultak egin dira gehienbat, eta gehienetan kontziliazio-eskubideen, emakume haurdunak kaleratzearen edo amatasunarekin lotutako eskubideren bat gauzatzen ari diren emakumeen gaineko kontsultak izan dira.

Aurten, enpresetan sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko protokoloak egitearen eta martxan jartzearen gainekoak nabarmentzen ditugu.

4. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexuan oinarritutako diskriminazio-egoeretan dauden herritarrak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa. Jarraian aipatzen da zein diren, orokorrean, berdintasunerako eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauak**:



- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena (CEDAW); NBEren esparruan hartutako nazioarteko araua –horren bidez, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute–. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarritzko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminazioa gailendu.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzen duela, zuzenekoa edo zeharkakoa izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –3/2012 Legeak aldatuta– pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

4.1 Kexen eta salaketen prozedurak:

2017. urtean berdintasun-eskubideen defentsarako arlo horrek kexen 91 prozedura eta salaketen beste 34 prozedura landu ditu. Eskaera horiek gehienak publizitatearen eta komunikabideen gainekoak dira (83).



Guztira 125 espediente sortu dira eta horietatik 55ean gomendioak bidali dira, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatze eta bermatze aldera. 61 espediente beste instituzio batzuetara bidali dira, eta bidalitako kexa gehienak publizitatearen edo komunikabideen gainean izan zirenez, horietatik 43 Madrilgo Emakumearen eta Aukera-berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokia bidali ziren, kexa horiek aztertu eta bideratu zitzaizkien. Gainera, 9 kexa Institut Català de les Dones erakundera bidali ziren, 6 Arartekora, eta bana Xunta de Galiciako Secretaría Xeral da Igualdadera, Junta de Andalucíako Instituto de la Mujer erakundera eta Espainiako Lanaren Ikuskapenera.

6 eskaera artxibatu dira, gehienetan planteatutako gaia sexuagatiko diskriminazioaren esparruan sartzen ez zelako, eta kasu bitan eskaera bidali dutenek ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko eskatu zaien informazio gehigarria ez dutelako bidali.

Kasu batean, bitartekaritza-lana egin da. Izan ere, Defentsarako Arlo honek enpresaren eta langilearen arteko bitarteko lana egin du, planteatutako gaia konpontze aldera eta ondorioz, alderdi bientzako irtenbide egoki bat aurkitze aldera. Azkenik, bi ikerketa-prozedurek irekita jarraitzen dute oraindik.

4.2 Komunikabideak eta publizitatea:

Herritarren eskubideen defentsarako esparruaren eta Begira Batzordearen arteko lankidetzabetebeharra dela medio, herritarrek publizitatearen eta komunikabideen gainean aurkeztutako kexak eta Batzordeak berak ofizioz planteatzen dituen kexak kudeatu ditu Defentsarako Arloak.

2017ko uztailaren hasieran mugikorren aplikazio berri bat jarri zen martxan, Begira izenekoa, zeinaren helburua baita normahik publizitatearen edo komunikabideen gaineko kexak bidali ahal izatea.



Kexaren tipologiaren arabera –publizitatea edo komunikazioa–, kexak neurri berean banatzen dira eremu bien artean. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputzaren irudi gauza bihurtzen duten iragarkien gainean.

Komunikazioaren eremuan, gizonen protagonismo handiagoa ematen dieten edo zuzenean emakumeak ikusezin bihurtzen dituzten albisteen gainean izan dira kexa gehienak, irudiengatik nahiz kontraeragatik. Kexak eragin dituzte, halaber, emakumeak eta gizonak modu ezberdinean eta estereotipatuan azaltzen dituztenak eta informazio benetan erabilgarririk eman ez eta herritarren arreta bereganatzea beste xederik ez duten albistek. EAEn egoitza soziala duten komunikabideen gaineko kasu guztietan, Deontologia Kodearen eta Publizitate eta Komunikazio Dekalogoaren edukietan oinarritutako gomendioak bidali dira.

Azkenik, ditugun datuak aztertuta, kexaren bat bidaltzen duten pertsonen profila egin daiteke (gutxi gorabehera), eta kexen ezaugarri orokorrak ondorioztatu. Profil hori ez da aurreko urtekoaren oso bestelakoa: unibertsitate-ikasketak eta 31 eta 40 urte bitartean dituen emakume bat, kexa bere izenean egiten duena eta lanaldi osoan lanean jarduten duena.

Publizitatearen gaineko kexak:

Uste dugulako publizitate-dekalogoaren punturen bat betetzen ez duten publizitateak dituztela, enpresa hauei gomendioak bidali dizkiegu: Bainuetxe, Clínica Quirón, EparkBilbao, Pub Perseus, Cargawen, Colegio de Mercedarias, Kutxabank, Tolosa C&O, Athletic Club, Eroski eta Zubiarte.

Kasu batzuetan, erakundeek beren borondatez kendu dute publizitatea, esaterako, Pub Perseusen kasuan; beste batzuetan, kanpainak aldi batekoak ziren, eta amaituta zeudelako ezin baziren kendu ere, erakundeek era positiboan erantzun diete Begiratik bidalitako gomendioei. Gainera, erakundeetako batzuek berretsi egin dute berdintasunarekiko konpromisoa eta adierazi dute borondatea dutela aurrera egiteko ematen duten publizitateak berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bete dezan. Ildo horretan, nabarmendu behar da erakunde hauek adierazitako konpromisoa: Tolosa C&O eta Athletic Club.

Kexak jarri diren publizitateari buruzko adibide batzuk:





Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Publizitateari buruz beste erakunde batzuei bidalitako kexak:

Era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira eta Batzordearen eskumen-eremutik kanpo badaude, eskumena duen organora bideratzen dira kexa bidali duen pertsonaren berariazko baimenarekin. Ildo horretan, kexak jaso dituzten enpresa iragarleak hauek dira: Revlon, Shoke, Fashionkids, Liberbank, Once, Fullmarks, Skip, Raid insecticida, Moviestar, Kaspersky, Al Campo, EurekaKids, KFC, Nidina, McDonals, Tampax, Prenatal, Correos, Choco Flakes, Dermovagisil, Kinder Huevo, perfume XS de Paco Rabanne, Juguettos-en jostailu-katalogoa eta Toys R Us eta Tedi.

Kexak jarri diren publizitateari buruzko adibide batzuk:





Komunikabideen gaineko kexak:

EAEn daudelako gomendioak bidali zaizkien komunikabideak hauek dira: *El Correo*, *Deia*, *El Diario Vasco* eta *Ser*. Kasu horietan, Autoerregulazio Kodearekin eta atxikita dauden Dekalogoekin duten konpromisoa gogorarazten zaie. *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Deia* egunkariak konpromisoa agertu duten horiekin.

Nabarmendu behar da 2017. urtearen amaieran, bi euskal komunikabidek erabaki dutela sexu-kontaktuetarako iragarkiak kentzea beren orrialdeetatik: *El Correo* eta *Noticias de Álava*, eta horixe jakinarazi zieten BEGIRA batzordeari eta Emakunderi.



Komunikabideei buruz beste erakunde batzuei bidalitako kexak:

Publizitatearen eremuan bezala, komunikazio-eremuan ere Begiraren eskumenaren lurralde-eremutik kanpo dauden kexak jasotzen dira. Kexa horiek, beraz, dagozkien erakundeei bideratzen zaizkie. Gehienak estatuko Emakumearen Institutuari, eta kasuren batean Institut Català de les Dones erakundeari. Kexak komunikabide hauen ingurukoak izan dira: *AS*, *El periódico digital*, *Antena 3* (“El Hormiguero”), *El Mundo*, *Paramount Chanel*, *Boing*, *Mujer de Hoy*, *El Nacional Cat*, *El Español*, *El País* eta *El Mundo Deportivo*.

4.3 Beste hainbat eremuren gaineko kexak eta salaketak:

Lan-eremua:

Guztira, **lan-eremuaren** inguruko hamar kexa eta salaketa jaso dira, gai hauei buruzkoak: bizitza pertsonala eta familiarra eta lan-bizitza kontziliatzeko eskubideak baliatzea; aitasun edo amatasungatiko diskriminazioa, eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena, eta abar.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluari jarraikiz, nuluak izango dira sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileen lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.
- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; eta horren 22 bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen duena.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.



Hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen zerrenda, erakundearen esku-hartzea eta esku-hartze horren emaitza.

Q20170029 espedientea	
Kexaren arrazoa	Sexuagatiko diskriminazioaren biktima dela dioen udaltzaina
Emaitza	Arartekoari bideratua

Q20170043 espedientea	
Kexaren arrazoa	Amatasunagatik lan-kontratua eten zaiolako enpresaren zuzendaritzarekin arazoak dituen emakume langilea.
Emaitza	Eskumenaren lurralde-eremutik kanpo artxibatu da

Q20170057 espedientea	
Kexaren arrazoa	Udal bateko emakume langile baten kexa amatasuna dela-eta, diskriminaziozko tratua jasan duelako.
Emaitza	Arartekoari bideratua

Q20170124 espedientea	
Kexaren arrazoa	Emakume langile batek arazoak ditu alabak 12 urte bete ondoren familiako eta laneko bizitza uztartzeko, bere kontratuko ordutegiaren aldean ezberdina den ordutegia zehazteko proposamen bat ukatu baitio enpresak.
Emaitza	Aldeen arteko bitartekotza-lanak egin dira

D20170022 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Emakume haurdunak kontratatzen ez dituen Erakunde Publiko bat.
Emaitza	Arartekoari bideratua



D20170082 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Sindikatu batek tokiko administrazio bat salatu du, erakunde horrek planteatzen dituen zerbitzu-eginkizunetako lanpostuak hornitzeko prozesuek lan-eskubideak urratzeaz gain, genero-berdintasunaren oinarritzko gaiei ere eragiten baitiete.
Eraitza	Arartekoari bideratua

D20170085 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Lan-eskaintza sexista: kongresuetarako emakume laguntzailea
Eraitza	Ebazpena

D20170153 espedientea	
Kexaren arrazoia	Amatasunaren eta aitatasunaren ondoriozko eskubideak gauzatzen dituzten langileen eta gainerako langileen arteko tratua ezberdina.
Eraitza	Ebazpena

D20170175 espedientea	
Kexaren arrazoia	Lan-eskaintza sexista: Interneteko Sare Sozialen mantentze-lanak egiteko lanposturako gizon bat eskatzen da.
Eraitza	Ebazpena

D20170192 espedientea	
Kexaren arrazoia	Aholkularitza-zerbitzu batek industria-enpresa bateko sexu-jazarpenera salatu du
Eraitza	Lanaren ikuskapenera bideratu da

Elkarteen Esparrua:

Esparru horri dagokionez, bi kexa aurkeztu dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan.

Q20170002 espedientea



Kexaren arrazoa	Oztopoak jarri zaizkio emakume bati elkarte gastronomiko batean bere senarra zenaren ordezkio bazkidea izan ahal izateko.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170189 espedientea	
Kexaren arrazoa	Praktika sexistak salatu dira elkarte gastronomiko batean: emakumeak ezin dira baldintza beretan sartu elkarteko instalazioetan.
Eraitza	Bideratze-prozesua

Kirol-eremua:

Kirol-eremuaren gainean hiru eskaera egin dira.

D20170007 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Kirolariak Federazioa salatu dute tratu ezberdina emateagatik.
Eraitza	Bideratze-prozesuan dago

D20170152 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Gizonen eta emakumeen arteko tratu ezberdinaren gaineko kexa herri-lasterketa batean.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170177 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Generoaren arabera sari ezberdinak salatu ditu, kirol-elkarte batek antolatutako San Silvestre lasterketa batean.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

Zerbitzuen eremua eta beste:

Kategoria horretan kasuistika zabala sartzen da, besteak beste: seinaleetika, hizkuntza, material didaktikoa, haurrentzako liburuak, museoak, taldeen jokabideak, etab. Denetan gertatzen dira



praktika sexistak, eta nahiz eta sarritan egoera oso sotilak izan edo ohikoak direlako oharkabeaz pasatzen diren egoerak izan, genero-ezberdintasunak betikitzen jarraitzen dute.

Eremu horiei dagokienez, hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketaren zerrenda, erakundearen esku-hartze mota eta esku-hartze horren emaitza.

D20170004 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Bilboko elkarte feminista batek eta emakume feministen talde independente batek ikuskizun bat bertan behera uztea eskatzen dute.
Emaitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170023 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Ertzaintzaren etxe batean jasotako arreta salatzen du
Emaitza	Arartekora bideratua

D20170025 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Komunean/apain-mahaietan emakumea objektu bihurtzen duten argazkiak/litografiak dituen taberna bat salatzen da
Emaitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170038 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Taberna bateko arbel batean egunero jartzen dituzten txiste matxisten gaineko salaketa
Emaitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170040 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Enpresa-sormenerako foroaren esparruan, hizlariak publikoko pertsona baten jarrera matxista jasan behar izan zuen. Idatzia bidali duen herritarrek salatu du erakundeak berandu erantzun zuela.
Emaitza	Jakinarazpena eta Gomendioa



D20170041 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Haurrentzako dibulgaziozko liburu baten edukiaren eta irudien gaineko salaketa
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170060 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Metroko linea bateko seinaleetika sexistaren gaineko salaketa
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170066 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Haurrentzako liburu baten gaineko salaketa.
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170073 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Emakume autonomoek gainerako emakumeen eskubide berak ez dituztela salatzen da
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170075 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Denda bateko txartela eskuratzeko galdetegi batean egoera zibilaz galdetzen dela salatzen da
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170076 espedientea	
Salaketaren arrazoaia	Euskadiko museo batean ez dago emakume irudirik
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

D20170077 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Euskadiko hiri bateko bigantxa-jaietan, bigantxa «normalen» aurretik «emakumeentzako bigantxa berezi bat» iragarri zuten
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170081 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Monologoak: iruzkin matxistadun ikuskizun bat
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170086 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Neskatoentzako ipuinak (arrosa) eta mutikoentzako ipuinak (urdina).
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170087 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Genero-estereotipoak haurrentzako film batean.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170088 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Gizonei eta emakumeei sari ezberdinak ematen zaizkie auzoko elkarte batek antolatutako txinga-lehiaketa batean.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170144 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Haurrentzako liburu baten gaineko salaketa bat
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da



D20170154 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Lehiaketa batean, epai-mahaia osatzen duten hamar lagunetik bat da bakarrik emakumea
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170168 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Ikasmateriala testu sexistekin.
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

D20170181 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Komunetan seinaleetika sexista duen taberna
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170185 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Barrakak irudi sexistekin.
Eraitza	Jakinarazpena eta Gomendioa

D20170188 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Museo batean, ez dago emakume figurarik, irudirik, etab.
Eraitza	Arartekora bideratua

5. 2016. URTEKO GOMENDIOEI JARRAIPENA:

2017. urtean, 2016. urtean bideratutako gomendioen jarraipena egiten da. Bidalitako jarraipen-eskakizun guztiei eman zaie erantzuna eta entitateek konpromisoa agertu dute bidalitako gomendioarekin.



6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:

Beste erakunde batzuekiko harremana dela eta, 2017. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetza-mekanismoak ezartzeko.

Emakunde eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen arteko Lankidetza Hitzarmena dela eta, hainbat lan- eta lankidetza-bilera egin dira herritarren kexak eta kontsultak bideratu ahal izateko.

Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren arteko Lankidetza Hitzarmenaren esparruan, kexak bideratzeko prozesu bat adostu da.

Azkenik, 2017/2018 ikasturtean, Emakunden EHUKo Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritu gara, Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloaren esku-hartzeen eta adibide errealeen bitartez.